

Liburu baten historia

Bihar beteko dira berrogeita hamar urte. Biharko egunez amaitu zuen Jack Kerouacek *On the road* (*Bidean*) bere nobela ospetsuaren idazketa.

Urteak zeramatzan liburu hori idatzi nahian; urteak estilo egokiaren bila; urteak euren bidaie-tan apunteak hartzen, ibaien izenak, mendienak, autoen markak. 1950eko udazkenean bigarren aldiz ezkondu zen. Joan Haverty bere emazteak lanetik etxeratzen zenean galderak egiten zizkion etengabe, Neali buruz, bidaia haiei buruz, hiriak, trenak, New York, Mexiko, dena jakin nahi zuen. Badirudi galdeketa haiek liburuaren txingarra piztu zutela Kerouacen baitan. 1951ko apirilaren 2an Kerouac mahaian eseri zen, paper-erroilu baten muturra sartu zuen idazmakinan, eta kafea edanez eta orduari begiratu gabe, idazten hasi zen. Apirilaren 22an amaitu zuen liburua: 125.000 hitz omen zeuzkan testuak.

Idazketa-lana amaituta, ordea, lan berri bat agertu zitzaion Kerouaci: liburua argitaratzearen gurutze-bidea. Ekainean, paper-erroilua besapean hartuta, Kerouac Madison Avenueko bulego batera joan zen. Han zegoen Robert Giroux, editorea. Erroiluari mutur batetik heldu eta biraka bota zion lurrera, bere aurreraino. 36 metro luze omen zeuzkan. Giroux harrituta zegoen. Eta esan zion: «Jack, hori moztu beharra dago, argitaratu behar bada». Kerouac sutu egin zen: «Inongo editorek ez du eskuizkribu hori ukituko!».

Girouxek ez zuen azkenik argitaratu nahi izan. 1952ko udaberrian, liburua baztertu zuten argitaletxeak asko ziren: Harcourt Brace, Knopf, Dodd Mead, Farrar Straus. Kerouac, ordurako, bere liburuan aldaketak sartzeko prest zegoen, eta horretan saiatu zen Mexikon, Burroughs bisi-tatzera joan zenean. 530 orriko bertsio bat pres-tatu zuen, baina azkenik aurrerapen bat ordain-dua zion Ace Books argitaletxeak erretxazatu egin zuen. Allen Ginsberg bere lagun minari liburua erokeria bat iruditzen zitzaion. Beste lagun batek, Carl Solomonek, esan zion liburua jardun inkoherente bat zela, eta Kerouac bera komun zuloko kaka zikina, eta bere izaera ume memelo, inozo, mimatu, erdeinagarri eta ezatse-gin batena.

Kerouac gizarajoa! Arazoak zeuzkanean egiten zuena egitea besterik ez zitzaion gelditzen egoe-ra hartan: bere amarengana joan zen ihesi.

1953an itxaropena berriro piztu zen Keroua-



cen bizitzan: Viking argitaletxean Malcolm Cowley zegoen, eta honi gustatu egin zitzaion testua. Belaunaldi gazteengan sor zezakeen lilura sumatu zuen, baina zegoen bezala hura ezin zen argitaratu. Kerouac bazkaltzera gonbidatu zuen, aldaketak non eta nola egitea komeni ziren ezta-baidatzeko.

Uztailerako Kerouacek egina zuen beste bertsio bat. Helene Taylor, Vikingeko jabeetako bat, konturatu zen nobela klasiko bat bihur zitekeela, bere ustez «narkotikoen eta edarien kontsumo ugaria, eta sexu harreman inmoral» gehiegi ageri zen arren. Hala ere, berriro erretxazatua izan zen.

1954an berriro ere baztertua izan zen argitale-txe berean eta honako hauetan: Ballantine and Vanguard, E.P. Dutton, Little Brown...

Kerouac etsipenak jota zegoen erabat, eta New Yorketik alde egin zuen, eskuizkribua bere agenteari utzita. 1955ean, honek berriro eman zuen testua Vikingera. Bertan arduradun berri bat zegoen, Keith Jennison. Honek bi oztopo baizik ez zizkion ikusten liburuari: gordinkeria eta pertsonaietan ezagutzeko modukoak ziren pertsona errealeen izenak zikintzea. Kerouacek esandako guztia aldatu zuen txintxo-txintxo.

Dena luzatzen ari zen, eta Kerouacen etsipena gero eta handiagoa zen. Azkenean, 1957an, Kerouacek pakete bat jaso zuen etxean: bertan zetozen *On the road* liburuaren ale batzuek. Sei urtetako gurutze-bidea amaitua zen. Irailaren 5ean, *New York Times* egunkarian liburuaren sekulako kritika ona etorri zen: gauean idazle ziz-trin eta ernegatu gisan oheratu zen Kerouac ospetsua zen goizean. Apartamentua kazetariz bete zitzaion berehala, xanpaina edan zuten, eta Kerouacek, bere lotsa gainditzeko mozkorturik, ezin izan zion kazetariei ezer esplikatatu. Ez orduan eta ez geroago.

Klasiko bat jaio zen, nobela zoragarri bat, eta idazle bikain bat hil: ordutik aurrera, Kerouac bere amarekin bizitzera joan zen, erabat alkoholi-zatuta, eta telebistaren aurrean hil zen 1969an, 46 urte zituela. Beti edan omen zuen asko, baina nobela handi bat idatzi beharra zeukala-eta kontu hartzen omen zion edariari. Behin *On the road* argitaratu ondoren, mugarik gabe edaten hasi omen zela diote lagunek, bizitzan beste zereginik geldituko ez balitzaio bezala. Bere talentuari nobela eder bat ostu ondoren, talentu haren euskarri zen gorputza desagitea erabaki balu bezala.

ZAZPI BEGIKO •

Juan Luis Zabala

kolpean

- Ramon Saizarbitoriaren nobelagintzaz ale monografikoa kaleratuko du aurki Erein argitaletxearen *Ereinkaria* aldizkariak. Javi Rojok, Mari Jose Olaziregik, Jon Kortazarrek, Markos Zapiainek eta Iñaki Aldekoak osatu dute, bakoitzak artikulu batekin, ale berezia.

Gizasemearen zakiltasunak

Noiz eta non irakurri nuen, nork idatzitako artikulu edo liburuan, euskal narratiba misoginoa zela, euskal narratibak ihes egiten ziola amodio harremanen kontu eta gora-beheretan sakontzeari? Ez naiz oroitzen.

Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakar-dadean* nobelako protagonistak sexuaren inguruan agertzen dituen kezka arruntak *Ostia!* eta *Putz*-eko irudi eta testu ustez ausart eta bide-urratzaileek baino balio handiagokotzat-edo jotzen zituen artikulu

bat ere irakurri nuen, ez naiz oroitzen noiz eta non; gogoan dut, hala ere, artikuluaren egilea Iban Zaldia zela.

Joseba Gabilondori irakurri diot —horretaz ongi oroitzen naiz, aldean baitut oraindik *Hegats*-en 28. zenbakia— honako hau: «[Lourdes] Oñederra bezalako emakumezko idazleek gizabanakoaren desira eta libidoen zentraltasuna ekarri digute euskal literaturara. Hemendik aurrera lite-raturak 'herria errepresentatu edo askatu'

nahi badu, berauon gizabanako biztanleen libidoetatik pasa beharko du».

Ez dakit Gabilondok, Zaldia eta euskal narratibaren misoginiak mintzatu zen egile aherentziak Ramon Saizarbitoriaren *Bihotz bi, hilobi bat* eta Aingeru Epaltzaren *Rock'n'Roll* irakurri dituzten. Eta hala bada zer iritzi duten nobela horietaz. Nik behintzat atsegin handiz irakurri ditut Epaltzak eta Saizarbitoriak gizasemearen zakiltasunen barne miserietara egindako jaitziera gordin urriakgabeak. Ezagutzatik idatzi dute. Eta ezagutzatik irakurri ditudalak diot bete-betean asmatu dutela.